# 2018 jarduera bilduma
# 2019ko aitzinikusi jarduera programa

## EEPren hizkuntza politikaren koadroa

• **Hizkuntza Politika Proiektua: «Hiztun osoak helburu. Haur eta gazteak lehentasun»**

- EEPk eraman euskararen aldeko hizkuntza politika publikoaren dokumentu estrategikoa, 2006ko abenduaren 26an onartua

- Hamabi erronka nagusi, hiru familiatan bilduak:
  - **Euskararen transmisioa** Familia bidezko transmisioa, Lehen haurtzaroaren harrera eta Irakaskuntza.
  - **Euskararen erabilpena**: Hedabide; Aisialdi; Argitalpen; Bizitza soziala eta Toponimian.
  - **Zeharkako eremuak** Helduen euskalduntzea; Euskararen kalitatea; Ikerkuntza eta Motibazioa.

• **2018-2022 Proiektu Estrategikoa**

- 2018ko urriaren 19ko OPLBko Biltzar Nagusiak onartutakoa, EEPren estrategia 2018-2022 aldirako finkatzen du.

- Hizkuntza Politika Proiektuaren jarraipena da, honen helburu nagusia eta lehentasuneko hartzaileak berretsiz, baita obratzeko printzipioak ere:
  - Politika boluntarista
  - Eragileen eta hiztunen parte hartze askearen errespetua
  - Indarrean dagoen lege-esparruan
  - Politiken arteko koherentzia: hizkuntza politika arlokako politiketan txertatzea

- Hizkuntza politikaren testuinguru berria kontuan hartuz aldi berean:
  - Notre Legea "eskualde hizkuntzen sustapena" eskumena ofizial bilakatu zuena eta eskumen partekatua zela baieztatu zuen
  - Ipar Euskal Herria 2015-2020 lurralde kontratua, sinatzaileak, bakoitzak bere eskumeneko esparruetan, hizkuntza politikan arduratsu jokatzera engaiatu baitziren
  - 2016ko EEPren ebaluazio txostenaren gomendioak
  - 2016ko inkesta soziolinguistikoaren emaitzak
  - Euskal Elkargoaren sortzea eta 2018ko Ekainaren 23ko Elkargo Kontseiluaren euskararen aldeko "euskararen aldeko hizkuntza politika" onarrtzea.

- EEPren esku-hartzearen eremua definitzen du, eremuz eremu, hizkuntza-politikaren hiru ardatzak kontuan hartuz:
  - Euskararen transmisioa garatzea, irakaskuntzaren bidez, lehen haurtzaroaren, familia transmisioaren eta norbanako helduen euskalduntzearen bidez
  - Euskararen erabilera garatzea: egonaldiak, kirol jarduerak, argitalpena, komunikabide digitalak, bizitza sozialeko eragileak
  - Aldi berean, zeharkako eremuak eta funtzio euskarriak egituratzea, hizkuntza transmisioaren eta erabileraren erronken arrakasta bermatzeko: euskarazko formakuntza profesionala, euskara gaitasunaren egiaztapena, hizkuntza baliabideen baieztapena, eragile pribatuentzako diru-laguntza, mugaz gaindiko lankidetza, politiken ebaluazioa eta jarraipena, komunikazioa-sentiberatzea

# 2018ko jarduera bilduma…

## 1/ Euskararen transmisioa garatzea

- **Irakaskuntza**
  - EEPk 2017ko urriaren 19ko Biltzar Nagusian adostu 2017-2018rako lan programaren obratzea, Hezkuntza Ministerioarekin, arlo guzietan:
    - 1. atala. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzea:
      - 1. mailako irakaskuntza:
        - Egingarritasun ikerketak irakaskuntza sail elebidun berriak irekitzeko: Uztaritzeko Idekia eskola publikoa eta Armendaritze/Mehaineko HEE
        - Irakaskuntza sail elebidun berrien irekitzea: Uztaritzeko Idekia eskola publikoa eta Armendaritze/Mehaineko HEE
      - 2. mailako irakaskuntza:
        - Sail elebidun bat irekitzea Mauleko Saint-François kolegio pribatu katolikoan
      - Irakaskuntza teknologikoa, profesionala eta laborantzazkoa:
        - Irakaskuntza profesionala: Hurbileko eta herri bizitzako zerbitzuko (HuHeBiZ) Lehena eta Merkataritzako Lehena irekitzea Baionako Bernat Etxepare lizeoan 2017an ireki ziren Bigarrenen segidan
    - 2. atala. Euskarazko irakaskuntzen egituraketa kualitatiboa:
      - Sail elebidunetako ikasleen euskara maila ebaluatzea:
        - CM2 (hizkuntzen EEMBko A2 maila): ebaluazioak obratzea
        - Hirugarrenean (hizkuntzen EEMBko B1/B2 maila): kolegio elebidun guzietan ebaluazioak obratzea eta B1 edo B2 maila lortu duten ikasle guziei ziurtagiria banatzea
      - Sail elebidunean edo murgiltzean ikasi duten ikasleei araberako egiaztagiri baten emateko behin behineko dispositiboa: ikasturte hondarrean, sail elebidunetatik heldu diren eta Baxoa ukan duten ikasleei ikasbide elebiduna edo murgiltzezkoa izan dutelako Errektoretzak egiaztagiri bat ematea
      - Lehen mailako irakasleen formakuntza:

# …2019ko jarduera programa

## 1/ Euskararen transmisioa garatzea

- **Irakaskuntza**
  - EEPk 2018ko abenduaren 19ko Biltzar Nagusian adostu 2018-2019rako lan programaren obratzea, Hezkuntza Ministerioarekin, honako alorretan:
    - 1. atala. Euskarazko irakaskuntza eskaintzaren garatzea:
      - 1. mailako irakaskuntza:
        - Egingarritasun ikerketa sail elebidun berriak irekitzeko:
          - eskola publikoak: Domintxaine/Arboti/Arberatze/Etxarriko HEEn, Baionako eskuin hegiko gunea zehazteko
          - eskola pribatu katolikoak: guneak DDECrekin zehazteko
      - 2. mailako irakaskuntza:
        - Egingarritasun ikerketa sail elebidunak irekitzeko:
          - irakaskuntza publikoa: 2018-19an gune ikerturik ez
          - irakaskuntza pribatu katolikoa: guneak DDECrekin zehazteko
      - Irakaskuntza teknologikoa, profesionala eta laborantzazkoa:
        - Agertu diren beharrei erantzuteko sail elebidunen plantan ezartzearen egingarritasuna aztertzeko lanen jarraipena.2. atala.
    - 2. atala. Euskarazko irakaskuntzen egituraketa kualitatiboa:
      - Sail elebidunetako ikasleen euskara maila ebaluatzea:
        - CM2 (hizkuntzen EEMBko A2 maila): ebaluazioak obratzea
        - Hirigarrenean (hizkuntzen EEMBko B1/B2 maila): ikasle guzien ebaluazioak obratzea eta B2 edo B1 mailako ziurtagiriak ematea, lortu duten mailaren arabera
        - Lizeoaren bukaeran: B2 mailako gaitasun agiri berria sortzea EEP eta unibertsitateen arteko Euskara Gaitasuna Egiaztapen Dispositiboan eta lizeotar lagin batekin esperimentatzea
      - Sail elebidunean ikasi dutenendako egiaztagiri bat emateko behin behineko dispositiboa: sail elebidunetatik edo murgiltzetik heldu diren eta diploma (Baxoa edo beste) lortu duten ikasleei ikasbide elebiduna

## 2018ko jarduera bilduma…

- Jatorrizko formakuntza: 1.mailako Master MEEFean DIEBek ematen duen euskarazko formakuntza espezifikoaren oren kopurua emendatzea, seihilekoka 24 orenetatik 48tara, lehen mailako irakasleen jatorrizko formakuntzan "euskararen irakaskuntza eta praktika elebidunak" hobeki kontuan hartzeko
- Formakuntza jarraikia: irakaskuntza elebidunaren problematikei dogozkien 9 animazio pedagogiko eta 2,5 eguneko ikastaldia plantan ezartzea

▪ 1. mailako ikastetxe elebidunetan irakaskuntzen antolaketarako orientabide dokumentua:
  - Irakasleei zuzendu orientabide dokumentuaren egokitze lanak

▪ 1. mailako irakaskuntza publikoan, 2018ko eskola sartzeko eskola mapako neurriei buruzko elkar aditzea, Hezkuntza Ministerioaren eta EEPren artean

▪ 1. mailako saila elebidunetan, esperimentazio pedagogikoak egitea euskarazko irakaskuntza oren kopurua emendatuz:
  - Esperimentazio edo hedatze proiektua duten irakasle lantaldeak laguntzea:
    - Urruñako erdiguneko eskola publikoan, ama eskolako hiru urteetan osoki euskaraz irakasteko esperimentazio bat plantan ezartzeko egingarritasun ikerketa
    - Getariako ama eskola publikoan eta Baigorriko Donostei, Hazparneko Ste Thérèse eta Donibane Garaziko Ste Marie eskola pribatuetan euskarazko irakaskuntza denbora, ama eskolako handien mailara hedatzearen egingarritasun ikerketa
  - 2018ko sartzean Urruñako erdiguneko eskola publikoan esperimentazioa plantan ezartzea eta Getariako ama eskola publikoan eta Baigorriko Donostei, Hazparneko Ste Thérèse eta Donibane Garaziko Ste Marie eskola pribatuetan euskarazko irakaskuntza denbora ama eskolako handien mailara hedatzea
  - Ebaluazio konparatu baten protokoloa definitzea eta ama eskolako azken urtean obratzea, ama eskolako hiru urteetan irakaskuntza osoki euskaraz duten eta oren parekotasunean eskolatuak diren haurrei zuzendua (irakaskuntza publikoko 35 ikasleko 2 talde)

▪ Hezkuntza Ministerioa/Seaska/EEP hitzarmena:
  - 2015-2018ko hitzarmena obratzea
  - 2015-2018ko hitzarmenaren ebaluazio lanak abiatzea

## …2019ko jarduera programa

izan dutelako Errektoretzak egiaztagiria ematea

▪ Irakasleen formakuntza:
  - Jatorrizko formakuntza: irakasleen jatorrizko formakuntzan etorriko den erreformaren kari, irakaskuntza elebidunari dagozkion berezitasunak hobeki kontutan hartzeko eskaera ministerioari
  - Formakuntza jarraikia: oinarrizkoen mobilizazioaren nazio planaren edukietan, frantsesa eta euskara irakasleendako, frantsesaren irakaspenari dagokion zatia egokitzeko eskaera ministerioari

▪ 1. mailako ikastetxe elebidunetan irakaskuntzen antolaketarako orientabide dokumentua:
  - Orientabide dokumentuaren egokitzapen lanen bururatzea eta Akademiako Ikuskariaren baieztapenaren ondoren eskoletan banatzea
  - «Publiko zabala»-rentzako dokumentuaren egokitzapena, eskola erritmo berriei eta praktika pedagogiko berriei dagokienez (esperimentazioak), eta hedatzea hautetsiei, gurasoei…

▪ 1. mailako irakaskuntza publikoan, 2019ko eskola sartzeko eskola mapako neurriei buruzko elkar aditzea, Hezkuntza Ministerioaren eta EEPren artean

▪ 1. mailako saila elebidunetan, esperimentazio pedagogikoak egitea euskarazko irakaskuntza oren kopurua emendatuz:
  - Esperimentazio edo hedatze proiektua duten irakasle lantaldeak laguntzea:
    - Irisarriko, Arrosako, Angeluko Herriot eta Ainhoako eskola publikoan, eta Ortzaizeko St-Michel eskola pribatu katolikoan esperimentazio bat plantan ezartzearen egingarritasun ikerketa
  - 35 ikasleko 2 taldeen ebaluazio konparatuaren jarraipena, 1. urteko (CP) frantses eta matematikan (Estatu mailako ebaluazioak)
  - Ama eskolako azken urteko ebaluazioa hedatzea, irakaskuntza publiko eta pribatu katolikoko esperimentazio pedagogikoetan diren ikasle guziei
  - Ama eskolan euskarazko irakaskuntza indartuaren onura ukan duten ikasle taldeen jarraipena ama eskolatik 6. eraino: jarraipenaren eginmoldearen definizioa eta obratzea

# 2018ko jarduera bilduma…

- Bigarren mailan euskaraz irakasten diren ikasgaiak zabalduz irakaskuntza elebiduna azkartzea:
  - Etengabeko behaketa euskara dakiten eta beren gaia euskaraz irakasteko prest diren 2. mailako irakasleak badirenez jakiteko, irakasle horien euskara maila ebaluatzea, eta beharrez, formakuntza ikastaroak antolatzea (Errektoretzako euskararen ikuskariekin)
  - Egingarritasun ikerketak ikastetxeetako zuzendariekin
  - 2018ko eskola sartzean, euskarazko 2 irakasgai berri plantan ezartzea irakaskuntza publikoan:
    - Arte plastikoak 6.ean Baionako Camus kolegioan
    - Fisika eta kimika 6.ean Baionako Camus kolegioan
- Irakaskuntza elebidunean sartze eta jarraitze tasak hobetzea:
  - Euskararen transmisioari buruzko sentiberatze pack baten 2450 ale banatzea guraso berriei (ikus familia transmisioa), barne dituena euskaraz eta euskarazko irakaskuntza eredu desberdinen aurkezpena bai eta eremu eta sail bakoitzean irakaskuntza hori eskaintzen duten ikastegien zerrenda
  - 4 bilkura antolatzea Kanbo eta Hazparneko kolegio publikoen eremuan (3 Kanbon eta 1 Hazparnen) CM1 eta CM2ko ikasleentzat eta beren burasoentzat, Hezkuntza Ministerioarekin, ikastetxeetako zuzendariekin eta burasoen elkarteekin partaidetzan, ikasleak eta burasoak sentsibilizatzeko kolegioan eskaini sail elebidunean jarraitzeaz
- Euskarazko irakasle kopurua emendatzeko dispositiboak:
  - Sail publikoko irakasleen formakuntza:
    - Hezkuntza Ministerioa / Bordeleko Unibertsitatea / PAHU / Bordeleko Montaigne Unibertsitatea / EEPren arteko 2016-2018ko euskaraz irakatsiko duten irakasleen eta irakaslegaien formakuntzari buruzko Hitzarmen-markoaren obratzea
    - HN/PAHU/BMUen arteko berariazko ituna obratzea, irakaskuntza publikoko 1. eta 2. mailetako irakasle tituludunentzat, 2017ko martxoaren 6tik 2017ko urriaren 20a arte CLEREMOren euskarazko lehen formakuntza trinko saioa antolatzeari buruz: 1. mailako 6 irakasle eta 2. mailako 4 irakasle
    - Euskaraz irakasteko prest diren 1. eta 2. mailetako irakasle

# …2019ko jarduera programa

- Hezkuntza Ministerioa/Seaska/EEP hitzarmena:
  - 2015-2018ko hitzarmenaren ebaluazioa bukatzea eta hitzaremen berria elkar adituz definitzea
  - Hitzarmen berriaren izenpea eta obratzea
- Bigarren mailan euskaraz irakasten diren ikasgaiak emendatuz irakaskuntza elebiduna azkartzea:
  - Etengabeko behaketa euskara dakiten eta beren gaia euskaraz irakasteko prest diren 2. mailako irakasleak badirenez jakiteko, irakasle horien euskara maila ebaluatzea, eta beharrez, formakuntza ikastaroak antolatzea (Errektoretzako euskararen ikuskariekin)
  - Egingarritasun ikerketak ikastetxeetako zuzendariekin
  - Ministerioari honako eskaerak:
    - Euskarako BMIGA beste ikasgaietara zabaltzea
    - Korsikera eta Bretoierazko irakaskuntzaren gisan, euskarazko irakaskuntzak, kudeaketa deskontzentratuko Estatu mailako mugimenduko postu espezifikoen zerrendan sartzea
    - Ahozko edo/eta idatzizko probak euskaraz aurkezteko aukerak eta moldeak batxilergoaren erreformako testuetan sartzea
- Irakaskuntza elebidunean sartze eta jarraikortasun tasak hobetzea:
  - Euskararen transmisioari buruzko sentiberatze pack bat banatzea Euskal Elkargoko guraso berriei (ikus familia transmisioa), barne dituena euskaraz eta euskarazko irakaskuntza eredu desberdinen aurkezpena bai eta eremu eta sail bakoitzean irakaskuntza hori eskaintzen duten ikastegien zerrenda
  - 4 bilkura antolatzea Kanbo eta Hazparneko kolegio publikoen eremuan (3 Kanbon eta 1 Hazparnen) CM1 eta CM2ko ikasleentzat eta beren burasoentzat, Hezkuntza Ministerioarekin, ikastetxeetako zuzendariekin eta burasoen elkarteekin partaidetzan, ikasleak eta burasoak sentsibilizatzeko kolegioan eskaini sail elebidunean jarraitzeaz
- Euskarazko irakasle kopurua emendatzeko dispositiboak:
  - Sail publikoko irakasleen formakuntza:
    - Hezkuntza Ministerioa/Bordeleko Unibertsitatea/Bordeleko Montaigne Unibertsitatea/PAHU/EEP oinarri hitzarmena, euskarazko eta euskararen irakasle diren edo izan nahi dutenen formakuntzari buruzkoa, 3 urteko berritzea eta 2018-

titulodunak atzematea, 2018-19an 10 hilabeteko euskarazko bigarren formakuntza trinko saioa antolatzeko

- Euskarako konkurtso berezirako hautagai posibleen kopurua emendatzea:
  - Irakasle Ikasle Aprendiz (IIA) dispositiboa obratzea, lizentziako 2. eta 3. mailetako ikasleen aprendiz kontratua: Euskal ikasketetako L2ko 5 ikasle eta L3ko 5 ikasle (2016-17ko 4 barne)
  - "Euskaraz irakatsi" beka dispositibo esperimentala obratzea, 1. eta 2. mailetan sail elebidunetan euskaraz irakatsi nahi duten publikoko irakasle titulodunentzat eta publikoko euskarazko kanpoko EIKL lehiaketa pasatu nahi dutenentzat: 6 ikasle Masterdunak, 1.mailako 2 irakasle, 2.mailako BLZ irakasle bat
  - "Eskola Futura" mugaz gaindiko POCTEFA proiektua obratzea, EAEko eta Nafarroako ikasleek frantsesa ikasteko eta Akitania Berriko ikasleek euskara ikasteko, lehen mailako irakasleendako euskarazko konkurtso berezirako hautagai posibleen kopurua emendatzeko (proiektua Akitania Berria/Euskadi/Nafarroa Euroeskualdeak darama, EEPrekin partaidetzan): Euskadi eta Nafarroako 11 ikasle eta Akitania Berriko 7 ikasle hartuak
- Sail pribatu giristinoko irakasleen formakuntza: Euskaraz irakasteko prest diren 1. eta 2. mailetako irakasleak atzematea, euskara formakuntza trinko saio bat antolatzeko 2019an

- Ikasmateriala ekoiztea:
  - 2017-2021ko Hitzarmen-markoa obratzea
  - Ikas pedagogia zentroaren funtzionamendua diruz laguntzea eta 2018ko argitalpen programa diruztatzea (2018ko Hitzarmen-markoaren eranskina):
    - Euskara 1. zikloan, Naramus metodoko La sieste de Moussa albumaren itzulpena
    - Euskara 2. zikloan (Pilotis): 4 albumen itzulpena



2021 hitzaremen berria obratzea

- HN/PAHU/BMU berariazko ituna berritzea eta obratzea, irakaskuntza publikoko 1. eta 2. mailetako irakasle titulodunentzat Cleremok antolatu euskarazko bigarren formakuntza trinko saio bat antolatzeari buruz, 6 hilabetetik 10 hilabetara hedatuz formakuntzaren iraupena
- Euskaraz irakasteko prest diren 1. eta 2. mailetako irakasle titulodunak atzematea, 2019-20an euskara formakuntza trinkoaren hirugarren saio bat antolatzeko

- Euskarako konkurtso berezirako hautagai posibleen kopurua emendatzea:
  - Irakasle Ikasle Aprendiz (IIA) dispositiboa obratzea, lizentziako 2. eta 3. mailetako ikasleen aprendiz kontratua
  - "Euskaraz irakatsi" beka dispositibo esperimentala obratzea, 1. eta 2. mailetan sail elebidunetan euskaraz irakatsi nahi duten publikoko irakasle titulodunentzat eta publikoko euskara saileko kanpoko EIKL pasatu nahi dutenentzat
  - Euskadi eta Nafarroako ikasleek frantsesa ikasteko eta Akitania-Berrikoek euskara ikasteko "Eskola Futura" mugaz gaindiko POCTEFA proiektua plantan ezartzea, kandidatu euskaldunen kopurua emendatzeko Eskola-irakasleak kontratatzeko euskara saileko lehiaketan (Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa-Euroeskualdeak daraman proiektua EEPrekin partaidetzan): Akitania Berriko bigarren ikasle promozioa hartzea
- Sail pribatu katolikoko irakasleen formakuntza: begiztatuak diren irakasleen formakuntza planaren definizioa eta antolaketa moldeak

- Ikasmaterialaren ekoizpena:
  - 2017-2021ko hitzarmena obratzea
  - Ikas pedagogia zentroaren funtzionamendua diruz laguntzea eta 2019ko argitalpen programa diruztatzea (2019ko Hitzarmen-markoaren eranskina)

- Euskara 2, euskara irakasteko metodoa lehen mailan, 2. atala: CE1eko edukiak eraikitzea
- Euskara 5, euskara irakasteko metodoa lehen mailan: CM2ko edukiak eraikitzea
- Haramat CP edizio berria, Hatier argitaletxeko CAP MATHS CP-ren itzulpena (trebatzeko fitxategia, geometria eta neurrien kaiera, mat hiztegia eta irakaslearen fitxategi fotokopiagarria)
- Haramat CE2 edizio berria, Hatier argitaletxeko CAP MATHS CE2-ren itzulpena (ikaslearen eskuliburua, mat hiztegia eta irakaslearen fitxategi fotokopiagarria)
- Matematika kolegioan (Nathan), 4 ariketa-fitxategiren itzulpena
- Transmath 6. eta 5. (bertsio inprimatua)
- Transmath 4. eta 3. (bertsio esperimentala Ikasen webgunearen parte pribatuan)
- Historia Geografia kolegioan, Hatier argitaletxearen jarduera-fitxategien itzulpena
- 6. eta 5.eko jarduera-fitxategiak (bertsio inprimatua)
- 4. eta 3.eko jarduera-fitxategiak (bertsio esperimentala Ikasen webgunearen parte pribatuan)
- Fisika-Kimika – 4. zikloan (Mon carnet de Labo)
- Euskara kolegioan – Moodle plataforma
- Ikasbide metodoa A1.2, AEK-ko ikasleei zuzendua zaien euskara irakasteko metodoa
- 3 berrargitalpen:
  - Matematikak lantzen CP – fitxategia
  - Matematikak lantzen CM1 – fitxategia
  - Ikasbide metodoa A1.1, AEK-ko ikasleei zuzendu zaien euskara irakasteko metodoa
- Urteko argitalpen euskarrien itzulpenak

- Eskolaldi inguruko denboran euskararen erabilpena sustatzea: 2017-2018 ikasturteko proiektu deialdia
  - 2017-2018ko proiektu deialdian parte hartu duten 77 ikastetxeen 140 proiektuen aztertzea
  - Irakaskuntzako 3 sareen ordezkari eta aholkulari pedagogikoak biltzen dituen Batzorde teknikoak proiektuak aztertzea
  - EEPk 2017ko abenduaren 19ko Biltzar Nagusian erabakitzea

- Eskolaldi inguruko denboran euskararen erabilpena sustatzea: 2018-2019 ikasturteko proiektu deialdia
  - 2018-2019ko proiektu deialdian parte hartu duten 80 ikastetxeen 151 proiektuen aztertzea
  - Irakaskuntzako 3 sareen ordezkari eta aholkulari pedagogikoak biltzen dituen Batzorde teknikoak proiektuak aztertzea
  - EEPk 2018ko abenduaren 19ko Biltzar Nagusian erabakitzea

## 2018ko jarduera bilduma…

- 2017-2018ko proiektu deialdiaren tratatzea eta hestea:
  - Proiektu eramaileek 2018ko ekainaren 29rako helarazi beharreko egiaztagiriak aztertzea
  - Diru laguntzaren azken partea ematea
  - 2017-2018ko bilana egitea
- Dispositiboa berrabiaraztea 2018-19rako

- Kudeatu politikaren segimendua eta ebaluazioa:
  - Irakaskuntzako datu basea 2017-2018 ikasturterako eguneratzea, 1. eta 2. mailetarako eta hiru sareetarako
  - 2017-18ko egoera eta 2004 geroztiko bilakaera aztertzea

- Hezkuntza Ministerioa/Eskualdea/Departamendua/Euskal Elkargoa hitzarmen dispositiboaren segimendua:
  - 2017-2018 lan programaren obratzeari buruzko bitarteko bilduma prestatzea: irakaskuntza elebidun sail berriak irekitzeko egingarritasun azterketen bilanak, esperimentazio proiektuak, euskarazko HEDI berriak abiaraztea…
  - 2017-18 ikasturteko jardueren bilana eta 2018-19 lan programaren proposamena prestatzea

- Eragileak EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea

- **Lehen haurtzaroa: Lehen haurtzaroaren harrera kolektiboa**

  - Leha dispositiboaren gidaritza eta animazioa:
    - Dispositiboaz antolatu informazio bilkuretan parte hartzea
    - Labelizatze batzordearen animazioa:
      - Labeltze galde berriak eskuratzea
    - EEP, Departamendua, CAF eta MSA lotzen dituen partaidetza dispositiboa arraberritzeari buruzko lanak hastea

## …2019ko jarduera programa

- 2018-2019ko proiektu deialdiaren tratatzea eta hestea:
  - Proiektu eramaileek 2019ko ekainaren 28rako helarazi beharreko egiaztagiriak aztertzea
  - Analisia eta diru-laguntzaren azken partea ematea
  - 2018-2019ko bilana egitea
- Dispositiboaren azterketa eta egokitzapena 2019-20rako berritzeko

- Kudeatu politikaren segimendua eta ebaluazioa:
  - Irakaskuntzako datu basea 2018-19 ikasturterako eguneratzea, 1. eta 2. mailetarako eta hiru sareetarako
  - 2018-19ko egoera eta 2004 geroztiko bilakaera aztertzea
  - Adierazle kuantitatibo eta kualitatibo sistema bat plantan ezartzea: ikasle taldeen, irakaskuntza elebiduneko jarraikortasuntasaren, hizkuntza gaitasunaren ebaluazioaren eta besteren jarraipena

- Hezkuntza Ministerioa/Eskualdea/Departamendua/Euskal Elkargoa hitzarmen dispositiboaren segimendua:
  - 2018-2019 lan programaren obratzeari buruzko bitarteko bilduma prestatzea: irakaskuntza elebidun sail berriak irekitzeko egingarritasun azterketen bilanak, esperimentazio proiektuak, euskarazko HEDI berriak abiaraztea…
  - 2018-19 ikasturteko jardueren bilana eta 2018-19 lan programaren proposamena prestatzea

- Eragileak EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea

- **Lehen haurtzaroa: Lehen haurtzaroaren harrera kolektiboa**

  - Leha dispositiboaren gidaritza eta animazioa:
    - Hitzarmenezko dispositiboa arraberritzea eta Euskal Elkargoa sartzea
    - Labelizatze batzordearen animazioa:
      - Labeltze eskaera egin duten edo labela bukatu zaien haurtzaindegien diagnostikoa
      - Labeltze eskaerak aztertzen dituen Labeltze batzordeko bilkuren

- Haurtzaindegiei buruzko animazioa Euskal Elkargoari transferitzea: dosierrak transmititzea

- Labeltze bidean diren haurtzaindegien diruztatzean parte hartzea:
  - Bozkatu ziren laguntza plangintzen diruztatzean parte hartzen segitzea: Baionako San Espirituko Lehen haurtzaroko poloa, Arrangoitzeko Laminak, Uztaritzeko Urraska, Mugerreko Agerria, Urketako Ttipi Ttapa, Hiriburuko Xitoak, Hendaiako Dongoxenea, Urruñako Ohantzea, Kanboko Pimprenelle, Ahetzeko Ttipittoak
  - EEPko kideen eskumenetan diren eta EEPk partez diruztatzen dituen dispositiboen azterketa sakonaren kari, haurtzaindegien laguntza plangintzak diruztatzea aztertzea eta birdefinitzea: EEPren 2018ko abenduaren 19ko Biltzar Nagusiak 2010-2017 urte bitartean laguntza plangintza horientzat hitzarmenez hartu engaiamenduak ohoratzea erabaki zen, bai eta dispositibo berriak ez diruztatzea ere, bai laguntza plangintza berriak egiterakoan edota bururatu hitzarmenak luzatzerakoan

- Lehen haurtzaroko euskarazko harrera eskaintzaz informazioa hedatzea euskararen transmisioaz lurraldeko gurasoen sentiberatze dispositibo bateratuaren bitartez (ikus Familia transmisioari buruzko atala)

- Eragileak diruz laguntzea EEP/EJ fondo komunaren bitartez

- **Lehen haurtzaroa: Lehen haurtzaroaren familiako harrera**

  - Etxe-haurtzainentzat Departamendu Kontseiluak eraman euskarazko agirien dispositiboaren obratzean laguntzea, eskaera egin ondotik

  - Etxe-haurtzainen euskarazko harrera eskaintzaz informazioa hedatzea euskararen transmisioaz lurraldeko gurasoen sentiberatze dispositibo bateratuaren bitartez (ikus Familia transmisioari buruzko atala)



antolatzea eta animatzea

- Labeltze bidean diren haurtzaindegien laguntza plangintzen diruztatzean parte hartzea: 2010-2017 urteen bitartean onartu ziren laguntza plangintzen diruztatze partekatua segitzea

- Lehen haurtzaroko euskarazko harrera eskaintzaz informazioaren hedatzea euskararen transmisioaz lurraldeko gurasoen sentiberatze dispositibo bateratuaren bitartez (ikus Familia transmisioari buruzko atala)

- Eragileen diruz laguntzea EEP/EJ fondo komunaren bitartez

- **Lehen haurtzaroa: Lehen haurtzaroaren familiako harrera**

  - Etxe-haurtzainentzat Departamendu Kontseiluak eraman euskarazko agirien dispositiboaren obratzean laguntzea, eskaera egin ondotik

  - Etxe-haurtzainen euskarazko harrera eskaintzaz informazioa hedatzea euskararen transmisioaz lurraldeko gurasoen sentiberatze dispositibo bateratuaren bitartez (ikus Familia transmisioari buruzko atala)

**2018ko jarduera bilduma…**

- **Familia transmisioa**

  - Euskararen transmisioaz lurraldeko guraso berriak sentiberatzeko, EEP eta kolektibitateen arteko dispositibo partekatuaren obratzea:
    - 2017ko abenduaren 19ko Biltzar Nagusiak Packa luzatzea erabaki zuen, euskararen transmisioaz haur sortu berrien burasoen sentsibilizazioa du helburu, transmisioaren 3 katebegietan oinarrituz: familia, lehen haurtzaroko familia harrerak eta eskola.
    - Pack bakarraren obratzea:
      - EEPk gidatu ekoizpen bateratua
      - Dispositiboan parte hartzen duten kolektibitateetako 2.420 familiari banatzea: Baxenabarre, Hego Lapurdi, Errobi, Errobi-Aturri, Hazparne eta Xiberoa lurralde eremuak eta Biarritz eta Baionako hiriak.

- **Norbanako helduen euskarazko formakuntza**

  - Eragileei diru-laguntzak, EEP/EJ diru-laguntza deialdiaren bitartez

**2/ Euskararen erabilpena sustatu**

**2.1. Haur eta gazteengan eragin zuzena duten erabilera eremuak garatzea**

**…2019ko jarduera programa**

- **Familia transmisioa**

  - Euskararen transmisioaz lurraldeko guraso berriak sentiberatzeko, EEP eta kolektibitateen arteko dispositibo partekatuaren obratzea:
    - EEPk gidatu ekoizpen bateratua
    - Lurralde osoko familiei banatzea

- **Norbanako helduen euskarazko formakuntza**

  - Norbanako helduen euskarazko formakuntza sustatzea:
    - EEPko kideekin eta eragileekin partaidetzan, hizkuntza politika kuadro bat definitzea, eskaintza oso eta kalitatezko baten egituraketa ahalbidetuko duena, denentzat eskuragarri izanen dena bere dimentsio guzietan: lurralde estaldura, presentziazko zein distantziazko irakaskuntza eskaintza osoa, prezio erraztasuna, eraikin publikoen erabiltzeko posibilitatea, formatzaileen formakuntza, ikasleen jarraipena, informazioa/sensibilizazioa, eragileen diruztatzearen modalitateak, material pedagogikoa
    - Anartean, eragileei diru-laguntza segitzea, EEP/EJ diru-laguntza deialdiaren bitartez

**2/ Hizkuntza erabileraren sustatu**

**2.1. Haur eta gazteengan eragin zuzena duten erabilera eremuak garatzea**

## 2018ko jarduera bilduma…

- **Aisialdiko harrera kolektiboa**

  - AGAZetan euskarazko harrera sustatzeko eta egituratzeko politika obratzea, Euskal Elkargoarekin lankidetzan:
    - Esperimentazioa aitzina eramatea, 2017an engaiatu ziren hiru egiturekin
    - Bertze hiru egitura bolondres esperimentazioan sartzea
    - Euskal Elkargoari esperimentazioari buruzko elementuak transmititzea, sail horretan lekukoa har dezan

  - Uda Leku eragilea laguntzea:
    - EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea, aisialdi harrera diruztatzeko dauden zuzenbide komuneko laguntzen osagarriz
    - AIGAko formatzaile habilitazio agiriaren hautagaitzen jarraipena
    - Eragilearen DLAren (Tokiko laguntza dispositiboa) jarraipena
    - Eragileak duen formakuntza profesionaleko jardueraren garapenaren jarraipena
    - Zuzenbide komuneko diru laguntzen ustiatzeari dagozkion elementuak Euskal Elkargoari ematea
    - Uda Lekuk Uztaritzen ireki duen bilgune berriaren abiatzearen jarraipena

  - AIGA elebidunen formakuntza saioen antolaketari buruz GIKoDeZ 64-ak plantan ezarri gidaritza batzordean parte hartzea
    - Formakuntzarako baliagarriak diren tresnak sortzen laguntzea: lexiko elebidun bat argitaratzea, adin-gabeen harrera kolektiboari (AHK) dagozkion araudien sintesia
    - Frantzia eta Espainiaren arteko animaziorako diplomen baliokidetza proiektuaren jarraipena

## …2019ko jarduera programa

- **Aisialdiko harrera kolektiboa**

  - Uda Leku eragilea laguntzen jarraitzea:
    - Euskal Elkargoarekin batean, Uda Lekuko aisialdiko harrera finantzatzeko zuzenbide komuneko diru-laguntzak hobeki ustiatzeko elkarrekin lan egitea.
    - EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea, aisialdi harrera diruztatzeko dauden zuzenbide komuneko laguntzen osagarriz

  - Egonaldiak: Eusko Jaurlaritzarekin eta Nafarroako Gobernuarekin batean, sail elebidunetako ikasleentzako mugaz gaindiko egonaldi eskaintza egituratzeko lanak abiatzea

  - AIGA elebidunen formakuntza saioen antolaketari buruz GIKoDeZ 64-ak plantan ezarri gidaritza batzordean parte hartzea
    - Formakuntzarako tresna baliagarriak sortzeko laguntzea
    - AIGA elebiduna prestatzen duten formakuntza eragileentzako engaiamendu karta bat prestatzea
    - Frantzia eta Espainiaren arteko animaziorako diplomen baliokidetza proiektuaren jarraipena

- **Kirol jarduerak**

  - Gazteendako elebitako edo euskarazko kirol jarduera eskaintzak garatzeko politika bat definitzeko lanak abiatzea
    - Eremuko egoeraren azterketa egitea

## 2018ko jarduera bilduma…

- **Arte eta kultura heziketa**

  - Departamenduak kudeatzen duen kultura eragileen labelizazio dispositiboa:
    - Dispositiboan euskara kontuan hartzeko laguntza: AKH eskaintzen duten eragileen zerrenda partaideen webguneetan ezartzea (Departamendua, EEP, EKE, Ikas, Canopé, DDEC, Seaska)

  - HNZDZ 64-ak AKHri buruz plantan ezarri duen gidaritza batzordean parte hartzea

- **Irakaskuntza artistikoa: musika eskolak**

  - Departamenduak animatzen duen musika eskolen sarean, euskarazko eskaintzaren egituratze lanetan, Departamendua laguntzea
    - Departamenduak animatzen duen lan-talde bereziak eramaten dituen lanetan parte hartzea, eta karia horretara, 2017an egin inkestaren emaitzak ematea
    - Tokiko hizkuntzen lan-taldean, euskaraz eta gaskoiez musika ikasteko metodoa sortzeko proiektuan parte hartzea

  - Eragileak EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea, dauden zuzenbide komuneko laguntzen osagarri

- **Argitalpena: Irakurketa publikoa**

  - Irakurketa publikoko sarean euskara garatzeko Departamenduak eramaten duen lankidetza dispositiboan parte hartzea, EEPren egitekoa euskarazko euskarriak erosteko laguntza dispositiboan irakurketa publikoko alorrean diharduten beste eragile eta erakunde guziekin osagarritasunean heldu delarik (Pirinio Atlantikoetako Departamendu Liburutegia, KAEZ, Baionako Herriko Etxea: Bilketa programa, EKE, elkargoa)

  - EEP eta Euskal elkargoaren arteko lanen artikulatzea, irakurketa publikoko sareko euskarazko fondoen osaketari dagokionez:

## …2019ko jarduera programa

- **Arte eta kultura heziketa**

  - Departamenduak galdatuz gero, laguntzarekin aitzina segitzea dispositiboan euskara kontuan hartua izan dadin

  - Eragile pribatuak AKH eskaintza bat egituratzen laguntzea EEP/EJ fondo komunaren bitartez

- **Irakaskuntza artistikoa: musika eskolak**

  - Departamenduak animatzen duen musika eskolen sarean, euskarazko eskaintzaren egituratze lanetan, Departamenduak galdatuz gero, laguntzen segitzea

  - Eragileak EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea, dauden zuzenbide komuneko laguntzen osagarri

- **Argitalpena: Irakurketa publikoa**

  - Irakurketa publikoko sarean euskara garatzeko xedez Departamenduak eramaten duen partaidetza dispositiboan parte hartzea, eta Departamendua laguntzen segitzea, eskaera eginez gero

  - Irakurketa publikoko eragileak euskarazko euskarriak erosten laguntzea:
    - Azken aldiko 2018-19an EEPk eraman dispositiboan eragileek helarazi laguntza galdeak tratatzea
    - Liburutegi-mediatekei zuzendu euskarazko euskarria erosteko laguntza Euskal Elkargoaren esku uztea

**2018ko jarduera bilduma…**

- Euskal Elkargoak erabaki du mediateketako aktibitateetan elebitasuna barneratzea, eta kari horretara irakurketa publikoko egituren euskarazko fondoa osatzen laguntzea
- EEPko 2018ko abenduaren 19ko Biltzar Nagusiak erabaki zuen, azken aldiz, 2018-2019an euskarazko euskarriak erosten laguntzeko dispositiboa plantan ezartzea, Euskal Elkargoak mediatekei zuzendu bere dispositibo propioa 2019ko larrazkenean parti arazi artean, bai eta dispositiboko beste onuradunei buruzko (bigarren mailako egiturak eta elkarteak) ekintza moldeak eskumena duten beste partaideekin batean definitu artean

- **Argitalpena: Liburuaren ekonomia**

  - Eragileak EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea:
    - Euskarazko obrak argitaratzeko diru-laguntza: 25 proiektu 2018an
    - Merkaturatze tresnak ekoizteko argitaratzaileei laguntza: 4 proiektu 2018an
    - Euskarazko liburuen eta irakurketaren inguruan, eskolan edota eskolaz kanpoko animazio pedagogikoak eskaintzen dituzten eragileei laguntza: 2 proiektu 2018an

**…2019ko jarduera programa**

- Dispositiboko beste onuradunen kasua tratatzea, eta bereziki Bigarren Mailako Informazio eta Dokumentazio Zentroena (IDZ)

- **Argitalpena: Liburuaren ekonomia**

  - Eskudun diren erakundeekin lankidetzan, euskarazko argitalpeneko eragileak, existitzen diren eskubide komuneko laguntza dispositiboak mobilizatzen laguntzea, eta bereziki Estatuak, Eskualdeak eta CNLak izenpetu Liburu Sailaren Kontratua:
    - Dispositibo horien eta beren mobilizatzeko baldintzen azterketa partekatua egitea, eta beharrez dispositibo horiek egokitzea
    - Argitalpeneko eragileak laguntzea dispositibo horien mobilizatzen

  - EEPren orain arteko laguntza dispositiboak egokitzea, eskubide komuneko dispositiboen mobilizatzeari buruzko lanaren arabera

  - Anartean, eragileak EEP/Eusko Jaurlaritzako lankidetzarako fondoaren bitartez diruz laguntzea orain arteko baldintza berekin
    - Euskarazko liburuak argitaratzeko laguntza
    - Argitaletxeak euskarazko obrak merkaturatzeko tresnak ekoizten laguntzea
    - Euskarazko liburuen eta irakurketaren inguruan, eskolan edota eskolaz kanpoko animazio pedagogikoak eskaintzen dituzten eragileak laguntzea

## 2018ko jarduera bilduma…

**2/2 - Euskarari gizartean egiazko lekua emanen dion ingurunea garatzea, ekintza egituratzaileenak lehenetsiz**

- **Hedabideak**

  - Euskarak hedabide publikoetan duen lekua garatzea:
    - France 3 eta France Bleu Pays Basque hedabideei buruzko desmartxak, beren programazioan euskarari toki gehiago emateko aukerak aztertzeko:
      - Bilkurak France 3 eta France Bleu Pays Basque hedabideetako tokiko eta eskualdeko arduradunekin
      - Radio France eta France Télévision Frantzia mailako zuzendaritzei gutunak
  - Eragileak egituratzen laguntzea:
    - Kanaldude laguntzea, hedatzaile estatutua erdiesteko CSArekin izenpetu duen hitzarmena, eta Eskualdearekin izenpetu duen Helburu eta Baliabide Hitzarmena (COM) obratzeko lehen lanak bideratzeko
